

Musika Hamabostaldiaren Musika Aitzaki zikloa Euskal Herrian barrena ibiliko da abuztuaren 6tik 29ra

- Gipuzkoa, Lapurdi eta Araba zeharkatuko ditu eta geldialdiak egingo zikloarentzat bereziki esanguratsuak diren hainbat gunetan: Senpere, Hondarribia, hainbat arabar herri txiki, lekora edo La Puebla de Arganzón kasu, eta Chillida Leku edo Arantzazu.
- Genero eta formatu desberdietako 15 hitzordu izango dira eta horietan antzinako musika, ganbera zein orkestra musika, kantu-errezitalak, eta musika klasikoaren zein herri-musikaren arteko zubia eraikitzen duten proposamenak izango dira entzungai.
- Sarrerak salgai quincenamusical.eus webgunean eta Kursaal zein Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan.

Musika Aitzakik, Musika Hamabostaldiaren ziklo ibiltariak eskaintza zabala dakar, Gipuzkoa, Lapurdi eta Arabako hainbat herritan izango diren estilo eta formatu desberdinetako **15 emanaldi**, gaur bertan Arabako San Vicente de Aranan hasita: kantu-errezitalak, ganbera-musika, orkestra-musika eta abar entzun eta gozatzeko aukera. Azken urteotan Hamabostaldiak bere jardun-eremua zabaltzeko erakutsi duen konpromisoaren eutsita, zikloak musika klasikoa Euskal Herriko hainbat guneetara eta publiko berrietara eramatea du helburu.

Senperen, abuztuaren 7an Larreko Kultur Gunean, **Euskadiko Orkestrak Lina Tur Bonet** antzinako musikan adituaren zuzendaritzapean barroko estiloko obra-sorta aurkeztuko du. **Abuztuaren 8an, KamBrass Quintet** metal-boskoteak **Hondarribiko** Itsas Etxea Auditoriumean Errenazimenduko eta Barrokoko lanak zein gaur egungo musikako obrak interpretatuko ditu, tartean Garazi Zabaleta beasaindarraren partitura bat. **Abuztuaren 9an, Zumaiako** San Pedro elizan **Manuel Ruiz** kontratenorrek eta jatorrizko instrumentuak jotzen dituen **Ílber Ensemble** taldeak "Héroe desvelado" izenburudun kontzertua interpretatuko dute, barroko garaiko operetan heroia nola irudikatzen den azaltzea ardatz hartuta.

Etenaldi labur baten ostean, Musika Aitzaki **Senperera** itzuliko da **abuztuaren 14an**, oraingoan Saint Pierre elizara. **Bachcelona Akademiek Bakarlariek eta Bachcelona Consort** taldeak J. S. Bachen zenbait aria interpretatuko dituzte, hark miretutako Graupner, Telemann eta beste hainbat konpositoreren obrekin batera. **Abuztuaren 20an Oñatiko** Arantzazuko Santutegian urtero egiten den emanaldiaren txanda izango da: **Natxo de Felipe**, Oskorriren fundatzaileetako bat abeslari ohia izango da protagonista; Kuarteto Philiperenaren laguntzaz talde Oskorrik inoiz grabatu ez zituen edo jendaurrean eskaini ez zituen hamabost kantu eta hainbat doinu berri aurkeztuko ditu.

Abuztuaren 21ean izango da Hernaniko **Chillida Lekun** antolatutako bi ahots-errezitaletako lehena. **Vincenzo Capezzuto** kontratenor italiarra eta **Giancarlo Bianchetti** gitarristak Bachen kantatutako eta Vivaldiren operatutako ariak interpretatuko dituzte. **Abuztuaren 23an, Orioko San Nikolas elizan, Miriam Hontana eta Sònia Benavent** antzinako musikan adituek europar musika barrokoaren erreperorioaren baita bi biolinerako idatzitakoaren lagin bat erakutsiko dute. **Abuztuaren 27an**, berriz Chillida Lekun, Musikako Sari Nazionala merezi izan zuen **María José Montiel** mezzosoprano madrildarrak Manuel de Fallaren jaiotzaren 150. urteurrena gogoan hartuta prestatutako errezitala aurkeztuko du; Cádizko musikagilearen kantuez gain, Montielek Espainiako, Frantziako eta Euskal Herriko beste hainbat konpositoreren lanak interpretatuko ditu, hala nola Guridiren eta Sorozabalen obrak.

Hamabostaldia Araban ekimenak, Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin, sei arabar herritan egingo diren beste horrenbeste emanaldi ekarriko ditu aurren. **Abuztuaren 6an** hasiko da zikloaren ibilbidea Araban: **Iñaki Bermúdez** saxofonistak eta **Yume Takasaki** pianistak **San Vicente de**

Aranako elizan Ravel, Guinovart, Guridi eta Miquel de Jorgereren obrak interpretatuko dituzte. Hurrengo egunean, **abuztuaren 7an, KamBrass Quintet** boskoteak **Iekorako** elizan emango du kontzertua eta Hondarribian eskainiko duen egitarau berdina, hau da, Jan Bach, Juan del Encina, Manuel de Falla, Lully eta Garazi Zabaletaren obrak interpretatuko ditu. **Abuztuaren 15ean, La Puebla de Arganzón**-go Arganzón elizan, Maria Zubimendik eta Garazi Navasek osatutako **Expressio Duo** akordeoi-bikoteak **Elementuak** disko berriko erreperitorioa interpretatuko du; egitarauan, Aita Donostiaren, Guridiren, Rameauren, Rebelen eta Lullyren moldaketak aurkituko. **Abuztuaren 21ean Berganzoko** Larreko Andre Mariaren baselizan, **Eduarne Ruiz** mezzosopranoak eta **Iñar Sastre** pianistak Manuel de Falla, Granados, Ginastera, Ravel, García Lorca eta Pedrellen obrak aurkeztuko dituzte. **Abuztuaren 28an, Trio Rodin** taldeak "Romeo & Julieta 2.0" ikuskizuna eramango du **Zalduondoko** San Saturnino elizara; Prokofieven *Romeo eta Julieta* balleteko eta Leonard Bernsteinen *West Side Story* musikaleko pasarteak biltzen ditu emanaldiak. **Abuztuaren 29an** amaituko da Hamabostaldia Araban zikloa, **Aramaio**ko Ibarra Kultur Etxean: **Seikilos** Laukoteak "Tradición europea, voz vasca" egitasmoa aurkeztuko du; taldeak hari-laukotarako musika izango du ardatz eta Usandizaga, Schubert zein Serranoren obrak interpretatuko ditu.

Azkenik, Musika Hamabostaldiak urtero antolatzen duen **musika-ibilaldia Gipuzkoako barnealdeko Donejakue Bidearen** laugarren etapan barrena egingo da aurten, **Frantzesillagatik Astigarragara, bidean barrena, abuztuaren 23an**, goizeko 10:00etan hasita: Errenteriako Frantzesillaga probalekutik abiatu eta Astigarragaraino, bost kilometrotik gorako ibilbidea egingo da, Santiagomendiko ermitarako igoera barne; txangoan zehar, ohi bezala, musika bidelagun izango dute ibiltariek. Musika Hamabostaldiak bertan parte hartu nahi dutenen eskura autobus zerbitzua eskainiko du (13 €); autobusa Donostiako Autobus Geltokitik irtengo da, 9:30etan.

Honako hauek dira Musika Aitzaki zkloan, Gipuzkoan eta Senperen izango diren **8 kontzertuak**:

Euskadiko Orkestra

Abuztuaren 7a, 21:00 - Larreko Kultur Gunea (Senpere)

Euskadiko Orkestrak bere ohiko erreperitorio sinfonikoa alde batera utzi eta estilo barrokoan murgilduko da, antzinako musikaren aditu handietako bat den **Lina Tur Bonet** biolinista eta zuzendariaren eskutik. Concerto Köln talde historizistako kontzertino izan zen garaian Bachen ehun kantata baino gehiago jo zituen Bonetek eta Alemaniako konpositore handiaren musikaren inguruan osatu du programa: *Hari orkestrarako 2. suitea, la minorrean* eta *Biolinerako kontzertua, sol minorrean*. Azken obra horretan, Bonet bera izango da bakarlaria. Vivaldiren *L'Olimpiade* operaren oberturak eta Telemannen lanik ezagunenetako batek, "*Don Quijote*" suiteak, osatzen dute egitaraua. Musikaren historiako lehen obra programatikoetako bat da, eta On Kixoteren abenturarik gogoangarrienak azaltzen ditu.

KamBrass Quintet

Abuztuaren 8a, 20:00 - Itsas Etxea Auditoriuma (Hondarribia)

2017an Bartzelonan sortua, **KamBrass Quintet** gaur egun Espainiako musikagintzan etorkizun handiena duen metal-boskoteetako bat da. Europako agertokietan ere gero eta presentzia handiagoa du eta Suitzan, Alemanian zein Eslovenian eman ditu kontzertuak, besteak beste. Musika Aitzakirako prestatutako programazioak hainbat garai eta estilotako musikak bilduko ditu: Juan del Encina eta Jean-Baptiste Lullyren lanekin Errenazimentutik eta Barrokotik abiatuta; Manuel de Fallaren nazionalismotik igarota eta Jan Bachen zein Garazi Zabaleta beasaindarraren obrekin gaur egungo musikara helduta; izan ere, Zabaletaren *Oximoron* joko dute, iazko udan Hamabostaldiko Musika Garaikidearen Zikloan estreinatu zena.

Manuel Ruiz, kontratenorra / Iliber Ensemble

Abuztuaren 9a, 20:00 - San Pedro eliza (Zumaia)

Manuel Ruiz kontratenorrek lehen aldiz parte hartuko du Musika Hamabostaldian, eta Darío Tamayok zuzentzen duen eta jatorrizko instrumentuekin aritzen den **Iliber Ensemble** taldearekin jardungo da. barroko garaiko operetan heroia nola irudikatzen den azaltzea ardatz hartuta, "Héroe desvelado" izenburudun egitarauak heroia ibilbidea erakusten du: ohiko gizaki gisa abiatu, bidean abenturak eta gorabeherak bizi eta etxera erabat eraldatuta itzultzen den arte. Bidaia hori musikaren bidez kontatzeko, Ruizek Barroko garaiko operatako aria ezagunenetako batzuk hautatu ditu, esaterako, Händelen *Rinaldo*,

Orlando eta *Julio César*, Hasseren *Artaserse*, Vivaldiren *Giustino* eta Scarlattiren *La Giuditta*. Horiez gain, Biber, Lully eta Muffat konpositoreen interludio instrumentalak ere izango dira entzungai.

Bachcelona Akademie-ko bakarlariak / Bachcelona Consort

Abuztuaren 14a, 21:00 - Saint Pierre eliza (Senpere)

Azken urteotan Musika Hamabostaldiaren Antzinako Musikaren Zikloan aritu ondoren, **Bachcelona Consort** Senperen ariko da aurten. Bachen musika interpretatzeko sortutako talde katalanak aurten Bachcelona Akademian prestakuntza jaso duten bi bakarlari gazte izango ditu alboan: **Maëlys Robinne** sopranoa eta **Jana Corominas** mezzosopranoa. Johann Sebastian Bachen aria eta duez gain, hark estimu handian izandako bi konpositore garaikideren obrak ere interpretatuko dituzte: Georg Philipp Telemannenak eta Christoph Graupnerrenak lanak ere interpretatuko dituzte; behin baino gehiagotan haien musikaren eragina nabari da Bachen partituretan.

Natxo de Felipe & Kuarteto Philiperena

Abuztuaren 20a, 19:00 - Arantzazuko Santutegia (Oñati)

Aurten **Natxo de Felipe** izango da emanaldiko ardatza. Oskorri talde mitikoko sortzaile eta abeslari izandakoak, taldea 2015ean agurtu eta hamaika urtera, taldeak inoiz grabatu ez eta jendaurrean eskaini ez zituzten hamabost kantu aurkeztuko ditu; Lauaxeta, Andoni Egaña, Xabier Amuriza, Arnaud Oihenart eta Martin Laderretche dira, besteak beste, kanta horien hitzen egileak. Emanaldi berezi horren baitan aurkikuntza ugari eta kantu berriren bat ekarriko dituen erreperitorioa interpretatzeko, Natxo de Felipek **Kuarteto Philiperena** hari-laukotea izango du ondoan; taldeko lehen biolina haren semea da, Xabier de Felipe, eta horren kide dira Przemyslaw Pujanek (biolina eta moldaketak), Esther Alba (biola) eta Karnele Castillo (biolontxelo).

Vincenzo Capezzuto, kontratenorra / Giancarlo Bianchetti, gitarra

Abuztuaren 21a, 20:00 - Chillida Leku (Hernani)

Hernaniko Chillida Leku Musika Aitzakiko ohiko eszenatoki da; musika eta gainerako arte-adierazpideak aurkeztu ohi dira han eta, horregatik, Musika Aitzakik diziplina desberdinen arteko elkarriketa sustatzen duten proposamenak eraman ohi ditu bertara. Aurten, **Vincenzo Capezzuto** dantzari eta kontratenorrak, nazioarteko musikagintzan bide propioa egina duen artista italiarrak, **Giancarlo Bianchetti** gitarra-jotzailearekin batera, Johann Sebastian Bachen meza zein kantatutako ariak interpretatuko ditu, eta Antonio Vivaldiren *L'Andromeda liberata* eta *Il Giustino* operetako pasarteak ere bai. Capezzutorek jardunean zehar ahotsa eta gorputz-adierazpena bat datoz, kantua ez ezik, mugimendua ere baliabide bihurtzen du eta horixe izango da erreperitorio horri emango dion nortasunaren giltzarrietako bat.

Miriam Hontana, biolina / Sònia Benavent, biolina

Abuztuaren 23a, 20:30 - San Nikolas eliza (Orio)

Miriam Hontana eta Sònia Benavent biolinistek Europako Barrokoko bi biolinerako erreperitorioa izango dute oinarri; Rameau, Rebel eta Leclair konpositore frantsesen lanak, Johann Sebastian Bach eta Telemann alemaniarrenak eta Henry Purcell ingelesarenak bildu dituzte programan. Antzinako musikaren erreperitorioan ibilbide sendoa egina du Miriam Hontanak; bakarlari, ganbera-musikari eta nazioartean sona handia duten taldeetako kide gisa jardun du Europa, Asia eta Amerikako agertokietan barrena. Oraingoan, Sònia Benavent izango du bidelagun; barrokoko lanen interpretazioan aditua da Benavent eta La Ritirata, Tiento Nuovo zein Il Pomo d'Oro taldeekin aritu ohi da.

María José Montiel, mezzosopranoa / Miquel Estelrich, pianoa

Abuztuaren 27a, 20:00 - Chillida Leku (Hernani)

Chillida Lekuko bigarren hitzorduan, **María José Montiel** madrildar mezzosopranoa izango da protagonista, estatuko ahots liriko aipagarrienetako bat. 2015ean Musika Sari Nazionala, irakaslea da Berlingo Arte Unibertsitatean. **Miquel Estelrich** pianista lagun duela, mundu osoko agertokietan sarri interpretatu duen Espainiako kantuen erreperitorioa ekarriko du Hernanira. Manuel de Fallaren jaiotzaren 150. urteurrena dela eta, *Siete canciones populares españolas* interpretatuko ditu, eta horiekin batera, Montsalvatge, Ravel, Debussy, Hahn, Ovalle, Ginastera, Graver, Guridi eta Sorozabalen kantu-sorta.